




GUNE ANITZA

*Erronkak errealitate
bilakatzeko liburuxka*



AURKIBIDEA

Aurkezpena

4

Dekalogoia

5

Proposamenak

6

Aniztasuna txertatuz

7

Hiztegia

14

AURKEZPENA

“Aniztasunean dago edertasuna eta indarra.”

Maya Angelou

“Borrokaren helburu dugun askatasuna edozein izanda, berdintasunean oinarritutako askatasuna izan behar du.”

Judith Butler

Idatzi honen bitartez bizikidetzan oinarritutako oraina eraikitzeko konpromisoa berresten dugu. Dokumentu honekiko atxikimendua erakusten dugun elkarte, talde, gune, administrazio, etab.ek Aniztasuna errealitate ukazintzat jotzen dugu eta honen garapenerako eskubide eta askatasunen Berdintasun errealaren aldeko apustua egiten dugu. Horretarako lehen pausua, hau baimenduko duen testuinguruaren eraikuntzarekin hasten da gure guneetan.

Horretarako, bakoitzak eskura duen esparruan eta ahal duen neurrian, baina betiere zeharkakotasuna abiapuntu gisa galdu gabe, Berdintasun eta, nola ez, Aniztasunaren defentsaren alde, lan egiteko konpromisoa berresten dugu.

Gune Anitza zigilura atxikitzean hartzen dugun lehen lana gure gunea Aniztasunaren aldeko gune bezala zaintzea eta eraberritzea da. Hau dela eta diogu Gune Anitza, zalantzarik gabe, ongi etorri zigilu bat dela.

DEKALOGOA

Aurkezten diren hurrengo hamar puntuek Gune Anitzen funtzionamendurako abiapuntua sortzen dute:

- Zigilura atxikitzen garen guneok Aniztasuna gizartearen zeharkako eta berezko ezaugarritzat jotzen dugu.
- Identitate, izaera eta orientazio Aniztasunak balore positiboa izan behar du ezinbestean.
- Identitatea eta izaera mugatzea edo positiboa eta gogobetegarria den edozein harreman zigortzea ezin daiteke ulertu, ezta pertsonen arteko hierarkia ezartzerik ere.
- Hierarkizazio historikoaren ondorioz dauden gizarte desberdintasunen aurka lan egingo duten guneak gara. Ez ditugu eskubide eta askatasun Berdintasunaren mehatxu edota urratzeak baimenduko.
- Pertsonak gure guneetan tolerantak ez diren jarrerak, baloreak eta portaerak erakustea ez dugu baimenduko, ezta Aniztasunaren aurka erasorik burutzea ere.
- Administrazioei Aniztasunaren onarpen, sustapen eta babesaren alde lan egitea eskatzen diegu.
- Egun dagoen legediaren hobekuntza, Aniztasunaren zaintza (ezagutzan, hezkuntzan eta begirunean oinarritua) eta erasoen aurkako erabateko jarrera proposatzen ditugu tresna gisa.
- Jada martxan dagoen gazteriari eskatzen diogu aktiboki jarrai dezan Aniztasunaren bultzatze jarreraren indar bat gehiago izaten.
- Gazteria, maila pertsonal eta kolektiboan, Aniztasun ikuspegitik ahalduz eta kritikoa izatera animatzen dugu.
- Gazteria Gune Anitzak bilatu, aditzera eman eta sortzera animatzen dugu.

PROPOSAMENAK

Gune Anitzek ere badituzte helarazi nahi dituzten proposamenak:

• ADMINISTRAZIOEI

- o Aniztasuna eta bereziki LGTBI+ kolektiboaren egoera babestuko duen legedia eraiki.
- o Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurrean justizia egin dadin baliabideak ezarri.
- o Hezkuntza sisteman zeharkako balore bilakatzea Aniztasuna, honi lotutako formakuntzak behar besteko pisua izan dezan.
- o LGTBI+ kolektiboari buruzko ikerketak eta datuak lortzeko baliabideak sortu. Hala nola, LGTBI+ Behatokia sortu.
- o Oroitzapenezko daten garrantzia azpimarratu eta hauetan ekitaldiak egitea sustatu.

• GAZTERIARI

- o Norbere buruarekin lan kritikoa egin eta LGTBI+fobikoak diren balore, jarrerak eta portaerak aldatu.
- o Ahalduntze kolektiborako bidean eragile bat gehiago izan.
- o Era aktiboan Aniztasunarekiko aldekatasuna erakutsi.
- o Ez onartu Aniztasunaren aurkako erasorik eta hauek pairatzen dutenei laguntza eskaini.



ANIZTASUNA TXERTATUZ

O. SARRERA

Gune Anitza zigilua espazio fisiko zein birtualek Aniztasunarekiko aldekotasuna adierazteko seinalea da. 2016an aurkezten zen eta 2017an proiektuari bira bat eman zaio. Gune Anitz bat kudeatzeko gomendio liburuxka hau osatu da, espazio berrien atxikimendua sustatzeko asmoz.

Jarraian, mota guztietako guneetara egokitzen diren neurriak aurkeztuko dira. Aniztasunaren balorea kontuan hartuz, egunerokotasunean nahiz edozein proiektu aurrera eramatean hartu beharreko neurriak azalduko dira.

Ez da ahaztu behar, oso desberdinak izan daitezkeela Gune Anitzak izatera iritsi daitezkeen espazio motak. Bereziki, beraien erabilerari begira:

- Era guztietako elkarteak, bereziki gazteez osatuak daudenak, hauei zuzenduak edota hauei zuzentzen diren arlo konkrituak dituztenak.
- Kirola egiteko leku pribatu nahiz publikoak.
- Ikastetxe, unibertsitate edota ikasketak burutzeko espazio oro.
- Gazteei edozein motatako arreta nahiz zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa, denda edo bestelako espazioak.
- Administrazioak.
- Gazte espazio gisa ulertzen ditugun hainbat leku.

Gazteon beharrak, nahiak edota aisia hain anitzak izanda, ez da arraroa gazte espazioak ere hain desberdinak izatea. Horregatik da ezinbestekoa jarraian azalduko diren gomendioen orokortasuna. Ideia gutxi batzuk argi izanda gune bakoitzak egokitu beharko du bere ohiko funtzionamendua Gune Anitzaren filosofiara.

Jasoko direnak leku fisikoei zuzendutako jarraibideak dira; gune birtualek hizkuntzari dagozkienak soilik hartu beharko dituzte kontuan.

1. GUNEEN AZPIEGITURAK

Espazioen diseinuan edo birmoldaketan beharrezkoa da Aniztasunarekiko begirada txertatzea. Segurtasun irizpide orokorrak nahiz irisgarritasunari dagokion derrigorrezko neurriak dauden bezalaxe, Aniztasunean oinarritutako neurriak har daitezke hasieratik. Horrela, espazioa Berdintasun ikuspegitik egokia eta eroso dela ziurtatuko da.

Honetarako, kontuan izan beharko da:

- Gazteok erabiltzen ditugun espazioen alde pribatuenean ere Aniztasunaren eredu guztiei erantzutea. Komunak, aldagelak... norbanako guztien beharretara egokitu behar dira, beraien anonimotasunerako eskubidea ere ziurtatuz.
- Azpiegituretan erabiltzen diren mezuak, irudiak... ezin izango dira baztertzailerak izan. LGTBI+fobiak ez du mezuetan presentziarik izango.
- Hizkuntza barne-hartzailea erabiliko da, Aniztasunaren hainbat eredu egunerokotasunean txertatu beharko dira onarpen jarrera oinarri izanik.
- Bereziki garrantzizkoa izango da erreferenteez hitz egiten duten guneetan Aniztasunaren isla diren erreferente positiboak bilatzea, gazteok estereotipoei eta aurreiritziei uko egiteko.



Bainugela eta aldagela askoren zeinuak zaharkituak gelditu dira jada eta ez dira behar guztietara egokitzen, zein alternatiba erabili dezakegu?

2. PROIEKTUEN ANTOLAKUNTZA ETA DISEINUA

Aniztasunarekiko aldekotasuna elkar-elikatzen diren bi erataria gara daiteke. Alegia, ez direla “hau ala bestea” baizik eta aldi berean garatu daitezkeen bi bide direla.

Ondorioz, gune bakoitzaren gaitasun eta beharren arabera erabakiko da bide bat, bestea edo biak aukeratu eta garatzea.

Bietan lehena, oroitzapenezko proiektu bereziak garatzearena, Aniztasunaren begirada txertatzeko ohikoena izan da. Oroitzapenezko proiektuak, gainera, urtean zehar dauden oroitzapenezko nazioarte nahiz Estatu mailako datetan garatu daitezke. Hona hemen egun horien zerrenda bat:

- **Martxoaren 15a:** Trans* Ikusgaitasunaren Eguna
- **Apirilaren 26a:** Lesbianen Ikusgaitasunaren Eguna
- **Maiatzaren 17a:** LGTBI+fobiaren Aurkako Eguna
- **Ekainaren 28a:** Harrotasunaren Eguna
- **Irailaren 23a:** Bisexualitatearen Ikusgaitasunaren Eguna
- **Urriaren 11a:** Armairutik Irtetearen Eguna
- **Urriaren 23a:** Trans* Despatologizazioaren Eguna
- **Urriaren 26a:** Intersexualitatearen Ikusgaitasunerako Eguna
- **Azaroaren 8a:** Intersexualitatearekiko Elkartasun Eguna
- **Azaroaren 20a:** Trans* Memoriaren Eguna

Bigarren aukera apustu sakonago bat da. Aniztasunaren balorea sustatzearen harira edozein proiektutan zeharkako balore gisa txertatzea.



Nola lortu daiteke Aniztasunaren balorea zeharkako gisa izatea proiektu baten antolakuntza eta diseinuan? Zeintzuk dira honetarako martxan jarri ditzakegun estrategiak? Hona hemen ideia batzuk!

- Proiektuaren **dokumentazio guztiak hizkuntza barne-hartzailea** izan beharko du:
 - o Proiektuaren aurkezpenerako txostenak.
 - o Proiektuaren berri ematen duten berri, buletin eta bestelakoak.
 - o Bertan parte-hartzeko edo izena-emateko eskuragarri dauden orriak.
- LGTBI+ kolektiboak gure proiektuan parte-hartzeko **ekintza positiboko nahiz kolektiboaren defentsa bereizirako neurriak ezarri** behar ote diren **baloratu** beharko da. Adibidez:
 - o Azpimarratu espazioen aukeraketan edo erabileran kontuan izango direla hainbat gazteen behar konkretuak (komunei, aldagelei... dagokionez).
 - o Norbanakoen intimitatea beti babestuko dela ziurtatu beharra dago.
 - o LGTBI+fobikoak diren jarreraren prebentzio aldera, hauei erantzuteko protokolo bat ezartzea.
- Proiektuak lantzen dituen **gai eta adibideetan Aniztasunaren begirada txertatu** LGTBI+ kolektiboaren egoera edota LGTBI+fobiarena ikusaraziz. Adibidez:
 - o emagun asilo politikoa eskatzeko eskubide eta zailtasunen analisi bat egin nahi dugula. Honetan, norbanakoaren esperientzia eta bizitako zailtasunak ere txertatu nahi ditugu.
 - o Aniztasunarekiko aldeotasuna duen proiektu batean, ezinbestean planteatu beharko dira ondoko galderak: emakume eta gizonek berdin bizi al dute egoera? Zein ondorio ditu emakume eta gizon eredu bakoitzarentzat? Hauek guztiak gertakariaren ikuspegi osoago bat ahalbidetuko baitute, identitate, izaera eta orientazio mota guztiak kontuan hartzen dituen analisi bat eraikiz.

Aniztasunaren balorea zeharka txertatzearen bigarren erronka honek behar berriak azaleratzen ditu. Nagusiena Aniztasunari buruz gutxieneko formazio maila izatearen beharra izatea da.

Aldiz, egun badaude erronka honi aurre egiteko hainbat baliabide. Hona hemen bi aukera:

- Aniztasunaren balorea zeharka txertatzearen bigarren erronka honek behar berriak azaleratzen ditu. Nagusiena Aniztasunari buruz gutxieneko formazio maila izatearen beharra izatea da.
- Aldiz, egun badaude erronka honi aurre egiteko hainbat baliabide. Hona hemen bi aukera:

Bi pauso hauek ez dira soilik proiektu konkretuetarako, baizik eta Gune Anitzaren filosofia bera epe luzera egituratu eta garatzeko. Gure gunetik at dauden baliabideak behar izanez gero, kontuan izan beharko dugu maila estrategikoan diseinatu beharreko erronka bat dela. Alegia, proiektu konkretu bati erantzuna emateko baino, Gune Anitzaren filosofia sakonki landu eta txertatzeko apustua dela.

3. PROIEKTUEN KUDEAKETA

Gune bakoitzak aurrera eramaten dituen proiektu, ekintza edo ekitaldietan, aurretik diseinuan kontuan hartutako pausu guztiak martxan jarri beharko dira. Jarraian batzuk:

- Informazio bilketa orok Aniztasunaren begirada txertatua izango du.
- Norbanakoen informazio pertsonala jasoko balitz, anonimotasuna eta intimitatea guztiz ziurtatuak egon behar dira.
- LGTBI+fobiari aurre egiteko protokoloak jarraitu.
- Hizkuntza barne-hartzailea beti erabiltzen dela ziurtatu.

Azkenik, eta ekintzan Aniztasunaren balorea zeharka txertatu dela guztiz ziurtatze aldera, ezinbestekoa izango da proiektuaren ebaluazioan ere kontuan hartzea Aniztasuna. Honetarako, martxan jarri diren neurriak ebaluatu daitezke hainbat eratan:

- Parte-hartzaileen iritzia jasota.
- Martxan jarritako neurrien ebaluazio teknikoaren bitartez.

4. PAREKIDETASUNETIK LAN EGINEZ

Parekidetasuna proiektuen fase guztietan kontuan izan behar den balorea da. Eskubideak eta askatasunak berdinak izanik, LGTBI+ kolektiboak adierazi du hainbatetan hauek errealitate bilakatzeko neurri konkretuak, bereziak, ezarri beharko direla Berdintasun erreal baten egoeraz hitz egin ahal izateko.

Parekidetasun mota honen ezean, eskubide eta askatasun Berdintasuna ezin ziurtatu daiteke, Berdintasun ezarekin harremana duten hainbat oztopo mantentzea baimentzen baita.

Hau dela eta, kontuan izan behar da proiektu bakoitzean zein efektu izan dezakeen neutrala dirudien neurri batek LGTBI+ kolektiboarengan. Adibidez:

- Identitatea konplexutasun gehiegi ez duen gai bat bezala ulertzen dugu. Ordea, taldean Trans* pertsonak egonda gaia lantzeko era seguruenik desberdina izango da.
- Orientazio guztien ikusgaitasuna positibotzat jo daiteke. Ordea, ikusgaitasuna eragiteak, hau era autonomoan agertzea sustatzea baino, ondorio latzak ekar ditzake benetan ez badago onarpen testuingururik.

Gure helburuak eta oinarri daukagun errealitatea desberdinak direla kontuan izan behar dugu. Horregatik, gure proiektuak errealitatea kontuan izanda diseinatu beharko ditugu ezarritako helburuetara iritsi ahal izateko.

5. LGTBI+FOBIARI AURRE

Jarraian proposatzen dena LGTBI+fofia kasu konkretu bat agertzen denean Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Gune Anitza zigiluarekiko atxikimenduaren truke eskaintzen duen zerbitzua da.

Argi utzi nahi da zerbitzu hau Gune Anitza den espazio bat erabiltzen duen edozein pertsonak edota espazioak berak eska dezakeela, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren papera bitartekariarena izanik beti.

Hortaz, Indarkeria LGTBI+fofiko egoera bat emango balitz edota beste eraren bateko delitua den egoera bat suertatuko balitz, **salaketa juridikoa aurrera eramatea da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren gomendioa**. LGTBI+fofia salagarria ez den egoera bat sorrarazten denean baina pertsona deseroso sentitzen bada, ondoko prozedura burutuko da:

- Pertsona edo guneak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK) harremanetan ezarriko dira beraien kexa ondoko helbide elektronikora helaraziz:

egk@egk.org

***Postaren gaia “GUNE ANITZA BITARTEKARITZA”
izan beharko da.***

- Behin posta jaso, barne-kudeaketa burutuko da eta dagokion lan-arlora pasako da. Lan-arloko teknikaria izango da kasuaren kudeaketaren erantzule eta, behar izanez gero, inplikaturako parte guztiekin hainbat bilera burutuko ditu.
- Bitartekaritza sistema honen helburu minaren erreparazioa baimentzen duen elkarrizketa sortzea izango da. Baita ere etorkizunean antzeko egoerak ekiditeko proposamen bateratuak sortzea.

HIZTEGIA

Kontuan izanik *Sexualitatearen Koloreak* gidan Aniztasunarekin lotura duten kontzeptuen hiztegi nahiko zabala aurki daitekeela, jarraian soilik Gune Anitzaren filosofiaren ulermenerako oinarritzko kontzeptuak azalduko dira:

- **Aniztasuna**

Elkarrengandik desberdinak izatean eta, bereziki, desberdina izatea ugaritasunez gertatzean ematen den egoera. LGTBI+ kolektiboaren onarpenerako ezinbestekoa den balorea.

- **Berdintasuna**

Emakume eta gizonen arteko Berdintasunaz hitz egitean EGK-k erabiltzen duen formula laburtua. LGTBI+ kolektiboaren onarpena eta honen eskubideen garapena gai honetan dagoen erronketako bat da.

- **Identitatea**

Pertsona bakoitzak adierazten duen Identitatea, jaiotzerakoan esleitutakoarekin beti bat ez datorrena.

- **Izaera**

Gizarte idealen arabera femenino eta maskulino gisa kataloga daitezkeen ezaugarri fisiko nahiz psikologikoak.

- **LGTBI+**

Historikoki emakume edo gizon izateko eredu bakarra ulertzearen ondorioz, egun ere baztertua den kolektiboa.

- **LGTBI+fobia**

LGTBI+ kolektiboarekiko gorrotoa eta honi lotutako jarrera eta portaerak.

- **Orientazioa**

Pertsonen desiren 'norabidea'. Alegia, desiraren helburu diren pertsonen araberrako kategoria.

- **Parekidetasuna**

Kolektibo bakoitzari egokituta dauden neurriak diseinatzea ahalbidetzen duen balorea. Honen ondorio eta helburu da Berdintasun erreala sustatzea.

Dokumentu honetan zure gunearekin bat egiten duen edo egin dezaketen barne-funtzionamendu eta antolaketarako oinarriak daudela uste baduzu,

animatu eta atxiki zaitetz Gune Anitza zigilura!

Informazio gehiago:

www.egk.eus



**GUNE
ANITZA**

PROIEKTUA GARATU DU



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

PROIEKTUAN LAGUNDU DUTE



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES